

## **EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEAREN KOMUNIKAZIOAREN ZERBITZUAK KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA**

### **1. KONTRATUAREN XEDEA**

Lizitazio honen xedea Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari (Euskadiko EGAB) dagozkion komunikazioaren zerbitzuak kontratatzea da, agiri honetan ezartzen diren zehaztapenekin bat.

### **2. KONTRATUAREN ARABERAKO ZERBITZUAK**

Kontratu honetako komunikazioaren zerbitzuak ondorengoak dira:

- Pentsaurrekoetarako deialdiak egin eta horiek prestatzea.
- Pentsaurrekoetan esku hartzeko diskurtsoak eta gidoiak idaztea.
- Txostenak, prentsa-oharrak eta prentsa digitalizatuaren laburpenak egitea.
- Elkarrizketak lortzea.
- Erreportajeak lortu eta prestatzea.
- Argazki-erreportajeak egitea.
- Komunikabideekin koordinatzea.
- Materialen edizioa koordinatzea.
- Kontratuaren eremuan zerbitzuen hornitzaileak diren enpresekin koordinatzea.
- Komunikabideetan agertzen den informazioa kontrolatzea.
- Irudiaren eta komunikazioaren gaietan aholkuak ematea eta beren inpaktua aztertzea.
- EGABren argitalpenetarako hitzaurreak idaztea.
- Powerpointen edo antzeko formatuetan aurkezpenak egitean gauzatu eta aholkuak eskaintzea.
- Beste EGAB eta erakunde batzuekin kanpoko harremanetan komunikazioa kudeatzea.
- Erakundeekin (Eusko Jaurilaritza eta Eusko Legebiltzarra) eta gizarte- nahiz ekonomia-eragileekin komunikazioa kudeatzean lankidetzan jardutea.
- Gaztelaniaz nahi euskaraz EGABren argitalpenak ikuskatzea.
- Gizarte-sareetan komunikazioa kudeatzea.
- Buletinen eta web orriaren bitartez komunikazioa aholkatu eta ikuskatzea.

Aipatu ekintzak gutxi gorabeherakoak dira eta eremu horren barruan beste batzuetarantz bidera daitezke, hitzartutako kostua gehitu gabe.

### **3. ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA**

Eskaintzaileak aholkularitza- eta laguntza-lanak eta -zerbitzuak eskaini beharko ditu, Euskadiko EGABren komunikazio, argitalpen eta prentsa-kabinetearen behar guztiak estaltzeko.

Komunikazioaren estrategia orokorra, zehaztutako zerbitzu guztiak bere barruan dituen, aurkeztuko da eta egokitzat jotzen diren hobekuntzak egingo dira.

Ekimen bakoitzerako Euskadiko EGABk definitzen duen epean zerbitzuaren xede diren ekintza desberdinei buruzko zirriborroak aurkeztuko dira. Materialak paperean eta Euskadiko EGABrekin bateragarria den euskarri informatikoan egingo dira.

Erabiltzen diren irudiak eta argazkiak Euskadiko EGABren jabetzakoak izango dira.

Era berean, sei hilez behin memoria partziala aurkeztuko da prentsa-jardueren garapenarekin eta ondorengoak izango ditu:

- Tokia, eguna eta ordua
- Deialdiaren oharra eta txostena
- Deitutako komunikabideen eta parte hartu dutenen zerrenda
- Gorabeherak
- Komunikabideetan agerraldien zerrenda
- Jardueraren komunikazioaren balioztapena hurrengoekin: gorabeherak, motaren arabera bereiztea (elkarrizketa, erreportajea, prentsaurrekoa...) eta kritiken analisia.

Euskadiko EGABren esku nahikoa langile jarriko dira, lizitazioaren xede diren zerbitzuetarako espezializazio- eta esperientzia-maila egokiekin. Euskadiko EGABk kontratatu dituen jarduerak gauza ditzaten gaituztat jotzen ez dituen langileei betoa jartzeko eskubidea gordetzen du.

Komunikazio-jarduera garatzearen ondorioz lortzen den informazioari eta dokumentuei buruzko konfidentzialtasuna mantentzea eskatuko da. Betebehar hori ez da izango jendeak erabil ditzakeen datu eta informazioetarako.

Lizitazioaren xede diren zerbitzuak ezingo dira azpikontratatu.

#### **4. LANEKO ARRISKUEI AURREA HARTZEA**

Kontratua betetzeko egingo diren eragiketa guztietan, esleipendunak lanaren eta lan-arriskuak prebenitzearen arloan indarreko legeria betetzen dela zorrotasunez zainduko du. Laneko prebentzio eta arriskuei buruzko indarreko araudiak sektorerako aurrez ikusitako guztia bete beharko du eta, bereziki, ondorengoei erreparatuko zaie: prebentzio-ekintzen printzipioei (31/1995 Legea, azaroaren 8koa, laneko arriskuak prebenitzeari buruzkoa; 15. artikulua), langileen prestakuntzari (19. artikulua) eta lan-ekipo nahiz babes-bitartekoei (17. artikulua). Azkenik, arloan gainerako araudi berezia kontuan hartuko da.

#### **5. FAKTURAZIOA**

Esleipendunak emandako zerbitzuak urterako eskainitako prezioarekin bat hilero fakturatuko ditu.

#### **6. ESLEIPENDUNAREN GIZA BALIABIDEAK ETA BITARTEKO TEKNIKOAK**

Enpresa esleipendunak Euskadiko EGABri laguntza eta euskarri tekniko eskaintzeko giza baliabide eta bitarteko tekniko nahikoak eta egokiak izan beharko ditu. Helburua kontratuaren xede diren zerbitzuak ezartzeko orduan, lana zuzena eta ezin hobea izan dadin bermatzea da.

#### **7. SEKRETUA ETA KONFIDENTZIALTASUNA**

Enpresa lizitatzailerak edo esleipendunak Euskadiko EGABtik datuak lortzen baditu, horiek informazio guztiari eta, bereziki, pertsonala denari isilpeko tratua eta konfidentziala emateko konpromisoa hartzen dute, 15/1999 Lege Organikoak, abenduaren 13koak, Datu Pertsonalak Babesten dituenak (DPLO), xedatutakoarekin bat. Horrez gain, informazioa babestuko dute eta bere kargura dituzten langileek ez dute zabalduko, Administrazioak idatziz baimena ematen duenean izan ezik. Betebehar hori indarrean egongo da, nahiz eta kontratua amaitu edo bertan behera utzi. Hori guztia Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onetsi duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat egingo da.

Bilbo, 2015eko azaroaren 13a

Francisco José Huidobro Burgos

Batzordeburua